



Casilda Iturrizar Parkea (Bilbao)

Bilboko Abando aldeko Zabalgune planak, 1876an, lorategi publiko bat aurreikusten zuen hiribilduko Areatza eta Santimami komentua elkartu behar zituen Kale Nagusi baten hondo aldean. Horretarako gordetzen zen itsasadarreranzko apalune bat, eta horren inguruko beste lursail ordoki batzuk. Hiri berria libre jaiotzen zen, hirigune historiko zaharren lokarrik eta baldintzarik gabea, eta olgeta-leku publiko zabala eman nahi zitzaion, gizarte-parke bat, industri hiri ingeles eta amerikarren antzera.

Proiektuak denboraldi bat behar izango zuen abian jartzeko, 1907ra artean ez baita aurrera ateratzen planaren idazketa. Plana Ricardo Bastida arkitektoari eta Juan de Eguiraun ingeniariari agindu zitzaion, eta haiek aukera eklektiko bat proposatu zuten Forestier-engan inspiratuta -europar lorategi miresgarrien proiektugilea baitzen-, aukera erdi frantziar eta erdi erromantiko bat. Proposamen horretan ez ziren falta, noski, zumardi zuzenak, gurdiak inguru ibiltzekoak, eta lorategi botaniko biribil bat (frantziar erarakoa), eta horietaz gainera, bide karabilkatsuak, urmahelak, iturri monumentala, urjauzia eta haizpe bat (era erromantiko ingelesa). Lurraren gora beherek behartzen zuten eklektizismo horretara; izan ere, alde leunak soilik ematen du perspektiba luzeetarako bide, apaluneek, ordeta, gauza ikusgarrietara hobeto egokitzen diren bitartean.

Forestier bera gonbidatu zuten Bilbora, proiektua nola zihoan jakinaraz zezan. Urjauzia eta urmahela aipatze hutsak haren beste proposamen batzuetara joarazten du: Ciudadelako Parkeak, Bartzelonan, eta Maria Luisa Parkea, Sevillan. Bilboko parkea XX. mendearen amaiera aldera iritsi zaigunerako jasanak ditu erantsi batzuk (pergola, iturriak, monumentuak) eta zenbait gutxitze (esaterako, Arte Ederren Museoa hartzen duen lekua).

Pergola

Erantsi zorionekoa da, eta plaza obalatu luzanga batean datza. Plaza horren sarrerak bi kasalizio ditu, bat albo

bakoitzean, hondoko exedra batera biltzen diren arrosadirako beso eliptikoen bitartez luzatzen direnak. Ardatz nagusia batera dator alde leuneko etorbide zuzenetako batekin, eta besoetatik ere badu sarrera. Pedro de Ispizuak, egileak, bi lengoia erabili zituen, bata erregionalista (zeramikazko laukitxo mudejardun zutarriak eta eskudetedun adreiluzko zoladura) eta bestea barrokoa -ez arkeologikoa- kasalizioetan eta exedran.

Iturriak eta monumentuak

Ura gertatzen zaie parkeei ia zuhaitzak bezain berezkoa. Bilboko parkean ez zen urjauzirik eraiki, bai ordea urmahela (Ahateen Urmahela), hiriko umeek bisitatuena duten lekua. Proiektu batzuk benetan monumentalak bazterturik, iturriak apain-ohoragarriak dira, nabarmentzen dela andenekoa, zutarri bat, lau ur-zirrista eta brontzezko erliebeak dituen, Ricardo Bastidak egina (1914). Fusteak estilo eklektikoa agertzen du, urzirristak modernistak diren bitartean. Aureliano del Valleren iturria, Quintín de Torrek egina (1920), musikaren alegoria figuratibo ederra da (kordak ditugu urxirripak, markoztatzen duen pilonos egiptiarretik erortzen direnak). Azkenik, hondoan eta zuhaitz handien azpian aurkitzen dugu Guiard-i eskainitako iturribanku bat.

Parkeak Casilda Iturrizar bilbotar ongilearen izena du. Agustín Querol eskultore katalanak 1905ean Andere horren ohorean altxaturiko monumentuak hainbat kokaleku izan ditu parkearen barruan. Gaur egun urmahel batean kokaturik dago eta era tradizionalako monumentua gertatu da, hau da, marmol zurizko fuste altua du eta fuste honetan ardaztuta igotzen dira titularraren bertuteen alegoria diren figura batzuk, anderea irudikaturik dagoela gainean dagoen brontzezko soinenborrean.

Esan daiteke, XXI. mendera sartzeko gaudenean, bete egin dela XIX. mendearen amaiera aldeko bilbotar zinegotzien nahia, eta parkea, egiazki, Bilboko gizarte-harremaneke zerupeko alderdirik garrantzitsuena dela.

Testua: José Ángel Barrio Loza.



Casilda Iturrizar Parkea

Bilbao. (Kale Nagusitik iristen da, Moyua plazatik Jesusen Bihotza plazara bitartetik).

Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(Bilbao)

- Arte Ederren Museoa. (Museoko plaza, 2).
- Guggenheim Museoa. (Abandoibarra Hiribidea, 2).
- Musika eta Biltzar Jauregia. (Abandoibarra hiribidea, 4).
- Jesusen Bihotzaren Monumentua. (Jesusen Bihotza plaza).